

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren 2019ko erroldak jendaurrean jartzea eta ordaintzeko epea hastea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen 2019ko zergaren errolda osaturik, jendaurrean jarrita egongo da hamabost egun baliouduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, interesdunek aztertu ahal izan ditzaten eta, hala balegokio, egoki deritzeten alegazio eta erreklamazioak aurkeztu. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onetsizat emango da erabaki hau.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

I. Ordaintzeko epea.

a) Borondatezko epea: 2019ko apirilaren 20tik ekainaren 20ra.

B) Betearazte aldia: 2019ko ekainaren 21etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Lapuebla de Labarca, 2019ko martxoaren 13a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO